

IPARRALDEKO LEHENDAKARIORETZARAKO HAUTAGAITZAREN EGITARAUA

Estatutuetan eta Barne Araudian aurreikusitakoaren arabera, Iparraldeko Lehendakariordetzarako Jean Michel Larrasquetek jarraian azaltzen den jarduera-egitaraua aurkezten du,

EGITARAUA

Ondoko egitarauak kontuan hartzen du Euskal gizarteak (eta haratago mendebaldeko mundu osoak) bizitzen duen krisi sakona eta sistemikoa. Krisia, zio eta oinazi garaia da dudarik gabe, baina baita munduaren ditugun irudiak ere eta ulertze moduak birdefinitzeko momento aproposa. Eta haratago beste galdera batzuk pausa genitzake: mundu honetan nola posizionatzen garen eta aldaketa garai horietan zernolako anbizioak diren legítimoak eta nola ekartzen ahal dituzten bide jasangarriak gizartearentzat. Eta hortik, eraikin berri horri bakoitzak bere harria ekartzeko, nola ekin eta nola antola??? Galdera horiek balio dute pertsonentzat, baina baita erakundeentzat ere, eta beraz, Eusko Ikaskuntzarentzat ere!

Perspektiba honetan, dokumentu honek zehazten ditu (I) Elko misioa eta balore orokorrak zeintzu izan beharko liritekeen etorkizunean. Bigarrenez; (II), anbizio kolektibo honi begira, aipatuko dugu gure iritziz garrantzitsuenak diren datozen lau urteetarako ekintza antolatzekeo printzipioak, eta hirugarrenez (III), Eusko Ikaskuntzaren barnean, Iparraldeari eta Iparralde eta Hegoaldearen arteko harremani interesatuko gira.

I

1. EI-SEVen sorrerako **misioak** 90 urte beranduago gaurkotatzen ez duela galdu deritzogu. Euskal Ikaskuntzak sustatuz, herriaren gizarte eta kultur mailako beharrak bideratzeko asmoarekin sortu zen Elkartea, eta horretarako kultur eta zientzia-komunitate propioa egituratzea izan du xede. Betiere, EI-SEVen planteamendua irekia eta integratzailea izan da, ideologi eta politika mailako atxikitzeak alde batera utzita. Esku hartze eremu honen hedatzeari gehitzen diegu gizartean pausatzen diren galde guztiei, eta lan zientifiko hau horretan ari diren pertsona, talde eta erakundeekin lotzea.

2. Misioa sostengatzen duten **balioak**, EI-SEVen jarduna bideratu behar dutenak, honako hauek dira: orotariko izaera, baina gizarte eta kultur mailako askotariko arazoei aurre egiteko, betiere gure herrian gaur egun dauden ekimenak kontuan hartzen dituzten gaitasuna eta borontatea ukanik; kideen aniztasun ideologikoa, Euskal Herriarenganako maitasunak eta euskal gizarteak bakean aurrera egiteko nahiak batzen dituenak; egitura finkoak izatea euskal kulturaren lurralde guztietan; gizarte zibila batzeko gaitasuna; euskara laguntzea; eta Elkartearen zuzendaritzari eta kudeaketari begira, bazkide guztien partaidetzarekiko eta genero berdintasunarekiko konpromisoa.

3. Etorkizunera begira dugun **ikuspegiari** dagokionez, Eusko Ikaskuntza munduan euskal kulturaren erreferentzia izan beharko litzatekeelakoan gaude. Kulturaren eta zientziaren arloetan egindako lanetik abiatuta, gizarte arazoei aurre egiteko borontateari esker (batez ere bizi garen krisi sakoneko denboraldi honetan, non jokoan dena gizartearen etorkizuna besterik ez den), egitura berrituek emandako bultzadarekin eta teknologia berrien aldeko apustu sendoaren bidez, munduan euskal kulturaren argia erakutsiko duen itsasargi bilakatu daiteke Elkartea.

II

Alderdi horretarik, garrantzizkoak jotzen ditugu ondoko puntu hauek:

- **Kideen parte-hartzea** (berez ez doana), hortarako gogoetak egin beharko dira kideekin harreman eta esku-hartze molde berrietaz; arreta berezi bat gazteetan jarriz, bai eta Eusko Ikaskuntzaren gogoeta motak erakartzen ez dituzten sozietate alderdietan ere.
- **Lan ildoak**. Eusko Ikaskuntzak lagundu beharko luke euskal gizartearen etorkizunerako eta haren hedapenerako baliagarriak izan daitezkeen edonolako gogoeta eta ekintza. Obratze horiek molde

desberdinak har ditzakete. Arlo honetan, sakonki gogoetatu beharra dago Eusko Ikaskuntzaren kokaguneari buruz, ez baita kokatu beharko ikerketa erakunde instituzionalen (unibertsitate, teknologia zentroak...) eremu berean. Alderdi horretatik, uste dugu, berrikuntza sozialari loturiko gogoeta horien gauzatzeko herritarren parte-hartzea gure elkarteak landu behar duen eremu bat dela. Gainera, Diaspora eta Euskal Herri osoaren mailan obratze zientifikoen koordinazioa eta oldartzea lanketa eskatzen duen alor bat da, zeini Elkarteak anitz ekar dakioken.

- **Antolaketa eta komunikazioa.** Lan ildo hauez haratago, elkarkideekin plantan emateko komunikazioa (bi norabiduna: informatzeko, erne egoteko, entzuna izateko eta parte hartzeko) arra pentsatua eta arra indartua izan behar da. Gure aburuz, lurraldeen arteko ekintzen gurutzatzeak sustengu beharra dute (Iparraldetik begiraturaz, era bateko « Gipuzko-zentrismo » iraunkor eta sakon desegoki bat bizi dugu, urrun espero dugun egiazko kultura eta ihardunen gurutzatzetik). Bestalde, argi izan behar da Egitura kide eta hautetsien zerbitzuan dela, eta ez alderantzizkoa.
- **Hizkuntzak.** Bistan dena, euskararen promozioaren alde gara eremu guztietan (lan hizkuntza, argitaratzeak...). Nahi genuke indar berezi bat egina izan dadila alor honetan. Bestalde, Iparraldeko lurraldea besteak tratatuak eta errespetatuak diren hein berean izan dadila ere nahi genuke. Horrek esan nahi baitu ez dela kontsideratu behar gaztelera ia hizkuntza bakarra funtzionamenturako, eta atzeman behar dela, edo Iparraldeko kide ez hispanofonoari (usu ez euskalduna) utzi behar zaiola Elkartearen parte hartzera. Ezinbestekotzat ikusten dugu hurrengo kudeatzailea frankofonoa izatea, Iparraldeko sozietatea eta arazoak ulert ditzan eta horrela molde normalizatuz esku har ahal dezan. Gaitasun linguistiko honen eskasia laidoa bezala bizi dugu, eta guztiz emankortasunaren kontra dela kontsideratzen dugu.

III

Iparralde-Hegoalderen arteko harremanei buruzko gogoetak (2012 urteko alderdibien bilkuretatik finkatuak) honako hauek dira:

Oinarrizko printzipioak: lurraldearen berezitasunak eta Iparraldearen autonomia

- 1. Eusko Ikaskuntza multzo bat da. Eusko Ikaskuntzarentzat lurralde guztiak ezinbestekoak dira, eta harek denen parte hartze ernearen beharra du. Helburu orokorrak, beraz, amankomunak izan behar dira, baina lurralde bakoitzak badu dagozkion berezitasun propioak (idiosinkrasia, egoera politiko-instituzionala, egoera linguistiko eta kulturala, berezko dinamika...), beraz, funtzionamendu moldeak egokitu behar dira lurralde ingurumen bakoitzaren arabera, eta zatien multzoak horrela onartu behar du.
- 2. Iparraldearen kasuan, ezaugarri batzuk indar handiagoz agertzen dira: Iparraldean, Eusko Ikaskuntza legez elkarte ezberdin bat da EI-SEV-rekiko. "Eusko-Ikaskuntza – Société d'Études Basques" deitzen da eta Frantziako legediaren pean funtzionatzen du. Horrek ekartzen ditu molde administratibo berezi batzu, Hegoaldetik eramangaitz (eta baita usu ulergaitz!) direnak. Funtzionamendari dagokionez, Iparraldeko arduradunak dira Iparraldeko eta Frantziako erakundeekilako harremanaetaz arduratzen direnak. Bai Elkartearen barnean, eta baita Iparraldeko partzuerrekin, gehien erabitzen den hizkuntza frantsesa da. Kideen implikazioa proiektuen antolakuntzan eta kudeaketan askoz ere handiagoa da Iparraldean Hegoaldean baino, Hau aberastasun bat da eta ez da galdu behar. Honek kideen implikazio zuzena baimentzen du eta, bide batez, behetitzen ditu Iparraldeko estruktura administratiboaren gastuak.
- 3. Hegoaldeak eta Iparraldeak elkarrekin Euskal Herria osatzen duten arren, ezagutzen dituzten errealitate ekonomiko, soziala eta kulturalak oso ezberdinak dira. Halaber Donostiako Egitura zentralizatutik Iparraldeko gizartearengana "ailegatzea" oso zaila da. Honek Iparraldeko autonomiaren printzipioa onartu behar dela ekartzen du.

Kideen parte hartzea

- Kideek, bolondresak izanik, Elkarteari beren engaiamendua eta lana ematen diote, jarduera profesionaletik at. Beraz, Hegoaldean erabiltzen diren Donostiako Egiturarak finkatu erregelak eta antolakuntza moldeak osoki impositzea ez litzateke ez posible eta ez egokia. Halaber, Eusko Ikaskuntzako egiazko motorra, eta azken finean, motor bakarra dira kideak. Proporzio guziak atxikiz, noski, Iparraldea lurraldeen arteko dinamikoena dela askotan azpimarratua izan da.
- Egiturak, Lehendakaria eta Gobernuko organoak barne, kideek sortutako aktibitateen zerbitzura izan behar du orokorki, aktibitate horiek laguntzeko eta ondo eramateko, kalitate eta eraginkortasun hoberekin.
- Jakina, proiektu eta aktibitate ezberdinen arteko koordinazioak eta sinergia posible guzien erakitze lanek eskatzen dute antolakuntza eta funtzionamendu arau batzu definituak eta errespetatuak izan daitezten (arau nagusi eta praxiko batzuk definituak dira ondoko apartatuan). Hala ere, neurrikoak izan behar dira, ezen konstatazio kontsentsatu bat bait da malgutasun eza kideen desmotibazio eta galtzearen iturri nagusietako bat dela.

Ondorio praktiko eta zahatzak

Aurrean dagoen guzi honetatik, ondorio nagusi batzu ateratzen ahal dira (bistan dena ez dira denak hor biltzen) Hegoalde eta Iparralderen arteko funtzionamendu eta erlazioei dagokienez.

1. Iparraldea engaiatzen da bere presupuestoa urte hastapenean egiteko eta Hegoaldeari komunikatzeko, Iparraldeko kideen zerrendarekin batera.
2. Aurrekontu honek nabarmenduko ditu :
 - i. Egituraren xahutzeak (gastu fijoak)
 - ii. Iparraldeko proiektuak (gastu aldakorrak)
3. Batzorde eragileak onartzen du aurrekontu hori, eta baita ere gastu aldakorra aldatzen duen edozoin inizatiba
4. Eusko Ikaskuntzako Egitura orokorrak bere gain hartzen du Iparraldeko estruktura gastu guziak
5. Iparraldeko aktibitateari lotuak diren gastatze guziak Iparraldeak berak egiten dituen geroz, Hegoalde → Iparralde transferentziak izan beharko dira Iparraldeko diruztazaren blokeoak eta zailtasunak ekiditzeko. Partikularzki, urte osoko dotazioa transferitu beharko da bere osotasunean urtearen hastapenean.
6. Iparraldeko aktibitate osoa Iparraldeko berezko Egituratik eginga izango da, Frantziako administrazioaren eta Iparraldeko proiektuak diruztatzen dituzten instituzioen exigentzietara erantzuteko. Periodikoki, Iparraldeak Hegoaldeari gestio informazioa komunikatuko dio.

ONDORIOA

Errana izan den bezala, hain sakonki munduan eragiten duen krisia ikusirik, eta Eusko Ikaskuntzako finantzetan ere eragiten duen ber, «Biharko Eusko Ikaskuntza» diseinatzeko, funtsezko gogoeta estrategikoa egin behar da ahal bezain laster. Gogoeta honek partehartzailea izan behar du, sentsibilitate ezberdinek, diziplina aintzek, lurralde ezberdinek, kultura pluralek, diren ber gogoeta honetan parte hartzaileak izan behar dutela uste dugu. Xumetasun faltsuak bazterrean utzita, Iparraldeko ereduak alde interesgarriak ekartzen ahal dituela holako gogoeta hasteko momentuan.

Baionan, 2012ko ekainaren 23an